

3

Orriak

- 1 / **SARRERA**
2 / **INTRO**
•
ARTXIBOAREN SUKARRA
2-5 / **FIEBRE DEL ARCHIVO**
ARCHIVE'S FEVER
6 / — Julia Morandeira Arrizabalaga —
- 7-9 / **THE DAY AFTER**
MARYAM JAFRIREN ERAKUSKETA BAT
9-10 / **UNA EXPOSICIÓN DE MARYAM JAFRI**
AN EXHIBITION BY MARYAM JAFRI
— Ane Agirre Loinaz —
-
- 10-15 / **IKERKETA KASUAK:**
CASOS DE ESTUDIO:
CASE STUDY:
- 10-12 / **1. HURRENGO EGUNIK GABE / SIN UN DÍA DESPUÉS /**
NO DAY AFTER
— Leire Vergara —
- 12-14 / **2. EKUATORE GINEAKO KARTOGRAFIA BISUALAK /**
CARTOGRAFÍAS VISUALES DE GUINEA ECUATORIAL /
VISUAL MAPS OF EQUATORIAL GUINEA
— Inés Plasencia —
- 14-15 / **3. FILIPINAK ETA EUSKAL KOMUNITATEAK / FILIPINAS**
Y LAS COMUNIDADES VASCAS / PHILIPPINES AND THE
BASQUE COMMUNITIES
— Ane Agirre Loinaz —
-
- 16 / **ERAKUSKETAREN PLANOA**
PLANO DE LA EXPOSICIÓN
EXHIBITION FLOOR MAP
-
- 17-18 / **ERAKUSKETAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK**
ACTIVIDADES RELACIONADAS CON LA EXPOSICIÓN
ACTIVITIES LINKED TO THE EXHIBITION
-
- 19 / **HEZKUNTZA-PROGRAMA**
PROGRAMA DE MEDIACIÓN
EDUCATION PROGRAMME
- 20-22 / **ANARCHIVO SIDA**
— Equipo re —
-
- 22-26 / **1. ANIMALIA / ANIMAL / ANIMAL**
2. HERIOTZA / MUERTE / DEATH
3. OSASUNA / SALUD / HEALTH
-
- 27 / **ERAKUSKETAREN PLANOA**
PLANO DE LA EXPOSICIÓN
EXHIBITION FLOOR MAP
-
- 28-30 / **ERAKUSKETAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK**
ACTIVIDADES RELACIONADAS CON LA EXPOSICIÓN
ACTIVITIES LINKED TO THE EXHIBITION
-
- 31 / **HEZKUNTZA-PROGRAMA**
PROGRAMA DE MEDIACIÓN
EDUCATION PROGRAMME

Kooperazioa | Cooperación | Co-gradation
bétonsalon
Centre for Art and Research

Riksbankens | Colaboración | Collaboration
THE DANISH ARTS FOUNDATION



The Day After

2016.04.15 – 2016.06.26

Maryam Jafri-ren erakusketa bat
Una exposición de Maryam Jafri
An exhibition by Maryam Jafri



Sarrera

Estreinako aldiz, bi erakusketa desberdin aurkezten ditugu aldi berean gure aretoetan: *The Day After*, Maryam Jafriena, Bétonsalon – Centre d'art et de la recherche-ekin koproduzitua, eta *Anarchivo sida*, Equipo re-ren proiektua bera, eta Donostia-San Sebastian 2016 Kultur Hiriburutzarekin (DSS2016EU) elkarlanean ekoitzia. Biak sortzen dira leku amankomun batetik, artxibotik, eta darabilten diskurtsoak galderak egiten ditu periferia sinbolikotik -kasu batean herrialde kolonizatuetatik, bestean GIB/hiesetik- egindako historiaren irakurketen inguruan.

Lehena, *The Day After*, duela urtebete baino gehiago Bétonsalonek Maryam Jafri artista pakistandarraren proiektu honetan elkarlanean jarduteko egin zigun gonbitetik sortu zen. Haren ardatz nagusia *Independence Day 1934-1975* lana da, Afrikako eta Asiako zenbait koloniaren independentziaren ospakizunen argazki bilduma. Lan honen bidez bi ekintza ildo aztertzen dira: lehendabizikoa, artxi-boaren inguruan, eta bigarrena, herrialde kolonizatuaren eta haien metropolien arteko harremanen inguruan.

Tabakalerako erakusketarako, Maryam Jafrik, Parisen egon zenean landutako kasuak aurkezteaz gain, testuinguruari eta haren iragan kolonialari lotuago dauden ikerketa kasuak erakusten ditu, hainbat tokiko eragilerekin egindako lanaren fruitua. Honako hauek dira aztertutako kasuak: Afrika iparraldeko espainiar subirotasuneko lurrak, Ekuatore Ginea eta Filipinak.

Anarchivo sida, bestalde, Equipo rek (Aimar Arriola, Nancy Garín eta Linda Valdés) kultur ekoizpenaz eta GIB/hies politikez, paradigma ikusizko, afektibo eta ekonomikoak diren adetik, hiru urtez egindako ikerketaren emaitza da. Nola dokumentazioaren hala arte piezen bitartez, Carme Nogueira artistak diseinatutako gailu batez aurkezten den kontrartxibo bat proposatzen du erakusketak, historia idazten den lekua zalantzan jartzeko asmoz, besteak beste.

DSS2016EUrekin koproduzitutako erakusketa honekin batera, zenbait jarduera garatuko dira, beste dimentsio bat emango diotenak GIB/hiesa bezalako gai bati hizkuntzaren erabileraz eta entzuketaren lekuaz gogoeta egiteko lekutik.

Hala, aurkezten ditugun bi proiektuek ikerketa oinarri sendo bat dute, zenbait erakunderen arteko elkarlanetik sortuak dira, eta arte ekoizpenari zein ikerketatik ondorioztatutako kultur ekoizpenari egindako ekarpen moduan dihardute.

Intro

Por primera vez presentamos dos exposiciones diferentes en nuestras salas de manera simultánea: *The Day After*, de Maryam Jafri, coproducida con Bétonsalon – Centre d'art et de la recherche de París, y *Anarchivo sida*, un proyecto de Equipo re, y producida en colaboración con la Capitalidad Cultural Donostia-San Sebastian 2016 (DSS2016EU). Ambas nacen desde un lugar común, el archivo, y abordan un discurso interrogante sobre lecturas de la historia desde la periferia simbólica, en un caso desde países colonizados, en el otro desde el VIH/sida.

La primera, *The Day After*, nace de la invitación que nos hizo Bétonsalon hace más de un año para colaborar en este proyecto de la artista pakistaní Maryam Jafri. Su eje central es la obra *Independence Day 1934-1975*, una colección de fotografías de la celebración de la independencia de diferentes colonias africanas y asiáticas. A través de esta obra se abordan dos líneas de acción, la primera en torno al archivo, y la segunda en torno a las relaciones entre los países colonizados y sus metropolis.

Para la exposición en Tabakalera, Maryam Jafri, además de presentar casos elaborados en su paso por París, muestra casos de estudio más vinculados con el contexto y su pasado colonial, como fruto de su trabajo con diferentes agentes locales. Estos casos son: las plazas de soberanía, Guinea Ecuatorial y Filipinas.

Anarchivo sida, por su parte, es el resultado de tres años de investigación de Equipo re (Aimar Arriola, Nancy Garín y Linda Valdés) sobre la producción cultural y las políticas del VIH/sida, como paradigma visual, afectivo y económico. A través tanto de documentación como de piezas artísticas, la muestra propone un contra-archivo que se presenta a través de un dispositivo diseñado por la artista Carme Nogueira y pretende, entre otras cosas, cuestionar el lugar desde el que se escribe la historia.

La muestra, coproducida junto a DSS2016EU, estará acompañada por una serie de actividades que darán otra dimensión a un tema como el VIH/sida desde un lugar de reflexión sobre el uso del lenguaje y el lugar de la escucha.

De este modo presentamos dos proyectos con una fuerte base de investigación, surgidos a partir de la colaboración de diferentes instituciones, que contribuyen a la producción artística así como a la visibilización de la producción cultural resultante de la investigación.

Intro

For the first time we present two different exhibitions in our halls at the same time: *The Day After*, by Maryam Jafri, co-produced with Bétonsalon - Centre d'art et de la recherche, and *Anarchivo sida*, a project by Equipo re and produced in collaboration with Donostia-San Sebastian 2016 Capital of Culture (DSS2016EU). Both are born from the same place: the archive. They both pose a question on interpretations of history from the symbolic periphery: in one case from colonized countries and in the other from HIV/AIDS.

The first, *The Day After*, comes from the invitation made by Bétonsalon more than a year ago to collaborate on this project by the Pakistani artist Maryam Jafri. Its centrepiece is the work *Independence Day 1934-1975*, a collection of photographs of the celebration of the independence of various African and Asian colonies. The work examines two lines of action: the first around the archive and the second around relations between colonized countries and their metropolises.

For the exhibition at Tabakalera, Maryam Jafri, presents not only cases made in Paris, but also case studies more closely linked to the local context and its colonial past, as a result of the work made with different local agents. These cases include: Spanish sovereign of North Africa, Ecuatorial Guinea and the Philippines.

Anarchivo sida (AIDS Anarchive), is the result of three years of research by Equipo re (Aimar Arriola, Nancy Garín and Linda Valdés) on cultural production and HIV/AIDS policies as a visual, emotional and economic paradigm. Through documentation and artistic pieces, the exhibition offers a counter-archive presented through a device designed by the artist Carme Nogueira and its objectives include questioning the place from which history is written.

The exhibition, co-produced with DSS2016EU, will be accompanied by a series of activities that will add another dimension to HIV/AIDS from a place of reflection on the use of language and the place of listening.

Thus we present two projects heavily based on research and arising from the collaboration of different institutions. They contribute to artistic production and the visibility of cultural production resulting from research.

Artxiboaren sukarra

Julia Morandeira Arrizabalaga

Zer ondorio dauzka artxiboaz galdetzeak gaur egun?

Bere *Mal d'archive* [Artxibo-gaitza] saiakera dagoeneko klasikoan, Jacques Derridak artxibo kontzeptua aztertzen du, psikoanaliarekiko elkarriketan. Filosofoaren arabera, artxiborik izatekotan, beharrezkoa dugu leku jakin bat, aginte baten mende, bere teknika eta erreserbekin, bai eta bereganatze bortitz bat, botere-hartze bat ere. XIX. mendean geroztik, artxibo kontzeptua ezin bereiz daiteke nazio-estatuaren historiografia eta historizismo ofizialetik: lurraldeari buruzko kontakizun teleologikoen oinarria den gordailu material eta simbolikoa osatzen du, bai eta nazio ideia emango duen imaginarioa ere. Arrandiaz instituzionalizatzen da, eta eraikin monumentalak eraikitzen dira hirietan, artxiboak hartzeko. Natur zientzien museoek (beren bildumekin eta taxonomiarekin) edo unibertsitateak (jakintzaz egiten duen arlo zientifikoen arabera egituraketarekin) nola, artxiboak ere oroimena kudeatzeko eta historia inskribatzeko bere teknologiak, menderakuntzan oinarritutako bere sailkapen-irizpideak garatuko ditu, bai eta artxiborako sarbidea mugatzeko mekanismoak ere. Hiru erakundeok zeharkatzen dituen ordena epistemologikoa mairidire baten moduan inposatu zen gainerako esparru guztietan, eta gauzen ezagutza eta ordena mendealdarra unibertsala, neutrala eta ez-gorpuztua deneko ideia nagusitu zen. Gaur egungo artxiboak, beraz, hiru indarkeria motaren arabera egituratzen dira: erauzte-indarkeria, dokumentuak eta oroitzapenak erauzten dituen; indarkeria epistemologikoa, artxiboa (eta mundua) antolatzen dituen; eta estatuaren indarkeria, dokumentuak herritarren

Fiebre del archivo

Julia Morandeira Arrizabalaga

¿Qué implica hoy la pregunta por el archivo?

En su ya clásico ensayo *Mal de archivo*, Jacques Derrida ahonda en el concepto de archivo en diálogo con el psicoanálisis. Para que haya archivo según el filósofo, se requiere un lugar sometido a una autoridad, con sus técnicas y sus reservas, así como una apropiación violenta, una toma de poder. A partir del siglo XIX, el concepto de archivo se vuelve indelible de la historiografía y el historicismo oficial del estado-nación: constituye el repositorio material y simbólico en el que se asientan las narrativas teleológicas del territorio, así como el imaginario que coagulará la idea de nación. Se institucionaliza por todo lo alto, y se construyen edificios monumentales en las capitales para acogerlos. De manera paralela a los museos de ciencias naturales (con sus colecciones y taxonomía) o la universidad (y la estructuración del saber en disciplinas científicas), el archivo desarrollará sus propias tecnologías de gestión de la memoria e inscripción de la historia, sus criterios de clasificación basados en la subordinación, así como los mecanismos para restringir su acceso. El orden epistemológico que atraviesa estas tres instituciones se impuso como un manto sobre el resto del mundo; a saber: que el conocimiento y orden de las cosas occidentales es universal, neutral y desencarnado. El archivo moderno se articula por lo tanto a través de tres tipos de violencia: la violencia extractiva, que expropia documentos y memorias; la violencia epistemológica, que ordena el archivo (y el mundo); y la violencia de estado, que retiene los documentos fuera del alcance de los ciudadanos, para liberarlos sólo décadas más tarde cuando su potencial disruptivo

irismenetik kanpo gordetzen dituen, eta hamarkadak igaro eta haien ahalmen eraldatzailea indargabetua dagoenean baino ez dituen askatzen. Horrela egon zen hamarkada eta mendeetan zehar, iragan izoztu baten mausoleoa izateko abstrakzioan esekita, denboratik kanpoko haraindi batean kokatuta, zeharkaezin.

Derridak aipatzen duen artxibo-mina ikusmena eta jakinduria lausotzen dituen ondorez bat da, jatorrira itzultzeko nahi konpulsibo eta errepikakor bat, iragan-min bat. Artxiboarekiko konpulsio edo min sakon baten aurrean gaudela esan genezake: haren inguruko diskurtsoaren inflazio bat bizi dugu, hala gizarte-zientzietan nola arte garaikidean pizten duen miresmenaren erakusgarri. Azken boladan, bulkada artxibistikoa ikertu dugu, artxiboen politikak negoziatu ditugu, lanaldi partzialeko artxibozainak bihurtu gara, eta zenbait jakintza-arloren biraketa artxibistikoa nabigatu ere egin dugu. Hurbilpenak artxibo kontzeptuarekiko eta haren genealogiarekiko kritiko samarrak izan dira, noski. Baina, edonola ere, eta hemen, Ariella Azoulayek artxibo-sukarra izendatu duen artxiboaren inguruko ekoizpen-zati horretan jarri nahi dut arreta. Artxibo-sukarra erabiltzean ez dugu Derridaren saiakeraren ingelesezko izenburua hartzen eta gaizkiaren nozioak adierazten duen gaitz edo oinaze gisa ulertzetik sukarraren ahalmen infekzioso eta kitzikagarrira eramaten bakarrik. Egileak dioenez, “artxibo eta gordailu berriak sortzeko eta lehendik daudenak berrantolatu eta erabiltzeko eskubidea aldarrikatzeko ekimen askoren emaitza” ere bada artxibo-sukarra. “Derridak berak aipatzen ez duen” gertakari bat da, nik orain hemen neureganatu nahi dudana, artxiboaren politikaren urgentzia pentsatzeko¹.

Artxibo-sukarra artxiboaren sorkuntzaren azpian dagoen indarkeriarekiko erantzun organikoa da, ororen gaintik. Hura sortzeko baldintzak azalertzera bultzatzen duen bortizkeria da, bere baitan gordetzen duen historiaren idazkuntzan eta kontakizun handien eraikuntza ideologikoan izan duen rola azalertzera bultzatzen duen gogortasuna.

Deseraikitze-ariketa honek libre uzten duen espaziotik, kutsatutakoek galdera hauek zuzentzen dizkigute: nondik mintzo da artxiboa? Nori zuzentzen zaio? Zer kontakizun zabaltzen ditu? Nor errepresentatzen du? Nola partekatzen eta aktibatzen da? Izan ere, sukarrak areagotu egiten du ezagutza-ekoizpenaren dimensio subjektibo eta geopolitikoarekiko sentsibilizazioa: artxiboak botere-gune tradizioaletatik beste leku batzuetara eramatera bultzatzen du, beste geografia batzuk kartografiatu eta historiari begiratzeko beste ikuspegi batzuk zabaltzera. Artxiboak periferiako ahotsekin, begiradekin eta ekoizpen politikoarekin infektatzea da kontua, errepresentazio eta interpretazio hegemonikoak asaldatzeko helburuz.

tivo está ya desactivado. Así se mantuvo durante décadas, siglos, suspendido en la abstracción de ser mausoleo de un pasado congelado, situado en un más allá fuera del tiempo, impenetrable.

El mal del archivo al que se refiere Derrida es un malestar que nubla el ver y el saber, un deseo compulsivo y repetitivo por volver al origen, una nostalgia. Se podría decir que estamos asistiendo a un verdadero mal o compulsión por el archivo: una inflación del discurso en torno a él, que demuestra la fascinación que despierta tanto en las ciencias sociales como en el arte contemporáneo. De un tiempo a esta parte, hemos investigado el impulso archivístico, negociado las políticas del archivo, nos hemos convertido en archiveros a tiempo parcial, incluso navegado el giro archivístico de varias disciplinas. Claro está, los acercamientos han sido más o menos críticos con el concepto y genealogía del archivo. Pero en cualquier caso, y aquí, quiero centrarme en esa porción de producción en torno al archivo que Ariella Azoulay ha denominado fiebre de archivo. Fiebre de archivo no es únicamente la apropiación del título inglés del ensayo de Derrida para desplazarlo de la comprensión como dolencia o padecimiento que implica la noción de mal hacia el potencial infeccioso y excitante de la fiebre. Es, según la autora, “el resultado de numerosas iniciativas de crear nuevos archivos y repositorios, y de reclamar el derecho de reordenar y usar los ya existentes”¹. Un fenómeno “que el propio Derrida ignora” y que quiero apropiarme aquí para pensar la urgencia política del archivo.

La *fiebre del archivo* es, antes de todo, la reacción orgánica a la violencia sobre la que se funda el archivo. Es la virulencia que empuja a revelar las condiciones de su producción, el rol que ha desempeñado en la escritura de la historia y la construcción ideológica de los grandes relatos que contiene.

Desde el espacio que despeja este ejercicio de deconstrucción, aquellos y aquellas contagiadas se preguntan: ¿desde dónde habla el archivo? ¿A quién se dirige? ¿Qué narrativas disemina? ¿A quién representa? ¿Cómo se comparte, cómo se activa? Pues la fiebre provoca un aumento de la sensibilización hacia la dimensión subjetiva y geopolítica de la producción de conocimiento: empuja a desplazar los archivos de los centros tradicionales del poder hacia otras latitudes, a cartografiar otras geografías y a abrir perspectivas diferentes desde las que asomarse a la historia. Se trata de infectar los archivos con las voces, las miradas y la producción política de las periferias, y perturbar así representaciones e interpretaciones hegemónicas.

La fiebre también conlleva el derecho al archivo. Es la lucidez de reconocerse sujeto del mismo y reclamarlo como una herramienta del común. Sus síntomas son los permisos que nos concedemos al apropiarnos de sus materiales, al re-combinarlos en colecciones no-lineares ni ejemplarizantes, si no

¹ Ariella Azoulay, Archive. www.politicalconcepts.com.

¹ Ariella Azoulay, Archive. www.politicalconcepts.com.

Sukarrak artxiborako eskubidea dakar berekin, halaber. Norbere burua haren subjektu gisa ezagutu eta denontzako tresna gisa aldarrikatzeari lotutako argitasuna ere bada. Artxiboko materialez jabetu eta materialok bilduma ez-lineal ez-eredugarri baizik eta zatikatu eta osagabeetan nahasten ditugunean geure buruari ematen dizkiogun baimenak dira sukar horren sintomak. Irakurketa zeharkako, oker, horizontalagoak ahalbidetzen dituzten zentzu-konbinazio berriak irudikatzea da artxibo-sukarra. Zentzu guztiei baita gorputzari ere dei egiten dieten irakurketak eta artxiboa zeharkatzeko moduak; artxiboaren antolaketa espaziala agerian uzten dutenak, kategoria ez-baztertzailen eta ezusteko parametroen bidez. Artxiboa kidesasun, oihartzun eta diridiretatik abiatuta egitea da; euste-sistemak beharrean komunikazio-fluxuak aktibatzen dituen kutsaduraren eta ukipenaren logika batetik. Artxiboa, izaki bizidun gisa pentsatua, gorputz bigun gisa, izate mutante gisa.

Artxibo-sukarra da artxiboak egiteko epidemia inokulatzeko duena. Artxiboak, anartxiboak, kontra-artxiboak, bildumen bilduma edo bigarren mailako artxiboak; GIBaren krisia edo independentzia-eguna, adibidez, gure bizitzeko kudeaketa neoliberalaren edo nazioaren eredu mendebaldarraren esplotazioaren ifrentzu gisa ulertzeko plataformak. Artxibo-sukarrak beste esperientzia batzuk entzuten dituzten, beste afektu batzuk zirkulazioan jarri eta beste oroitzapen batzuk sorrarazten dituzten gordailuak eraikitzekeko urgentzia pizten du. Eta hori beren baitan gordetzen dituzten jakintza eta esperientziekin kontu handiz jarduten duten praktika batzuen bidez egitea dakar, halaber, haien infekzio-ahalmen kolektiboki askatzeko borondatek abiatuta. Era berean, historiaren amaieraren aitzakia neoliberalaren eta informazioa pribatizatzeko mehatxuren aurrean, artxiboaren suntsiketara besarkatzea ere bada hori. Ez malenkonia gisa, askapen gisa baizik: antzinako erregimenek gainbeheran etorri behar badute, haien artxiboak ere bai; haien aurriak bakarrik izango dira emankorrak. Gaur egun artxiboaz galdetzeak artxiboaren indar politikoa berreskuratzea suposatzen du, beraz, ez soilik historiarekiko erlazioan, baizik orainarekikoan. Artxiboa egitea bestelako historiografia bat lantzea baita, etorkizunaren arkeologia gisa.

“Artxiboaren auzia ez da iraganarekin zerikusia duen auzi bat. Ez da gure eskura egon daitekeen (edo ez) kontzeptu bati lotutako auzia, artxiboaren kontzeptu artxibagarri bat. Etorkizunarekin zerikusia duen auzi bat da, etorkizunaren beraren auzia, erantzun baten, promesa baten, etorkizunarekiko erantzukizun baten auzia. Artxiboa: zer esan nahi duen jakin nahi badugu, etorkizunean baino ez dugu ezagutuko. Agian.”²

fragmentarias e incompletas. La fiebre de archivo es imaginar nuevas combinaciones de sentido que permitan lecturas oblicuas, torcidas, más horizontales. Lecturas y formas de recorrer el archivo que convoquen todos los sentidos y el cuerpo también; que pongan de manifiesto el orden espacial del archivo a través de categorías no-excluyentes y parámetros insospechados. Es hacer archivo a partir de afinidades, ecos y reverberaciones; a partir de una lógica del contagio y del contacto que active flujos de comunicación en vez de sistemas de contención. El archivo pensado como organismo vivo, como cuerpo blando, como ente mutante.

Es la fiebre de archivo la que inculca la epidemia de hacer archivos. Archivos, anarchives, contra-archivos, colección de colecciones o archivos de segundo orden; plataformas desde las que entender, por ejemplo, la crisis del VIH o el día de la independencia como contra-cara de la gestión neoliberal de nuestra vidas o de la explotación del modelo occidental de nación, respectivamente. La fiebre de archivo infunde la urgencia de construir repositorios que presten escucha a otras experiencias, que hagan circular otros afectos y produzcan otras memorias. Implica además hacerlo desde unas prácticas que sean cuidadosas con los saberes y experiencias que custodian, desde una voluntad de liberar colectivamente su potencial infeccioso. Y también, frente a la mascarada neoliberal del fin de la historia y la amenaza de privatización de la información, es abrazar la destrucción del archivo. No ya cómo melancolía, si no como liberación: si los antiguos regímenes han de caer, sus archivos también - sólo sus ruinas serán productivas -. Pues la pregunta por el archivo hoy supone en definitiva recuperar la fuerza política del archivo, no sólo en relación a la historia, si no al presente. Porque hacer archivo es tanto una práctica de historiografía alternativa, como una arqueología del futuro.

“La cuestión del archivo no es una cuestión del pasado. No es la cuestión de un concepto relacionado con el pasado que pueda o no estar a nuestra disposición, un concepto archivable del archivo. Es una cuestión de futuro, la cuestión del futuro en sí mismo, la cuestión de una respuesta, de una promesa, de una responsabilidad para el mañana. El archivo: si queremos saber lo que significa, sólo lo conoceremos en tiempos de futuro. Quizás.”²

² Jacques Derrida, *Mal d'archive: une impression freudienne*. Paris: Galilée 1995. 362. or.

² Jacques Derrida, *Mal d'archive: une impression freudienne*. Paris: 2 Galilée 1995. p. 362

Archive's Fever

Julia Morandeira Arrizabalaga

What does the question about the archive involve today?

In his classic essay *Archive Fever*, Jacques Derrida delves into the concept of archive in dialogue with psychoanalysis. According to the philosopher, for there to be archive, a place subject to authority is necessary, with its techniques and reserves, as well as a violent appropriation, a taking of power. As from the nineteenth century, the concept of archive becomes inseparable from historiography and the official historicism of the nation-state: it is the material and symbolic repository that contains the teleological narrative of the territory and the imagery that is to coagulate the idea of nation. They are institutionalised to the full and monumental buildings are built in capital cities to accommodate them. Parallel to natural science museums (with their collections and taxonomy) or university (and the structuring of knowledge in scientific disciplines), the archive will develop its own technologies for memory management and the registration of history, its classification criteria based on subordination, as well as mechanisms to restrict access. The epistemological order that governs these three institutions was imposed like a blanket over the rest of the world; namely, that Western knowledge and the order of things are universal, neutral and disembodied. The modern archive is thus structured in three types of violence: extractive violence, which expropriates documents and memories; epistemological violence, which orders the archive (and the world); and state violence, which retains the documents beyond the reach of citizens, releasing them only decades later when their disruptive potential has been disabled. It remained so for decades, centuries, suspended in the abstraction of being a mausoleum of a frozen past, set in a timelessness, impenetrable.

Archive fever referred to by Derrida is a malaise that clouds vision and knowledge; it is a compulsive, repetitive desire to return to the origin, a form of nostalgia. It could be said that we are witnessing a genuine fever or compulsion for the archive: an inflation of the discourse around it, which shows the fascination it awakens in the social sciences and in contemporary art. For a while now, we have investigated the archival impulse, negotiated archive policies; we have become part-time archivists and we have even surfed the archival waves of various disciplines. Of course, the approaches have been more or less critical of the concept and genealogy of the archive. In any case, here I want to focus on that portion of production around the archive referred to by Ariella Azoulay as *archive fever*. Archive fever is not only the appropriation of the English title of Derrida's essay, to move it away from being understood as an ailment or condition that implies the notion of evil towards the exciting, infectious potential of fever. According to the author, it is 'the result of numerous initiatives to create new archives and repositories and reclaim the right to re-order and use existing ones'¹. A phenomenon 'that Derrida himself ignores' and which I want to appropriate here to reflect on the political urgency of the archive.

Archive fever is, above all, the organic reaction to violence on which the archive is based. It is the virulence pushing to reveal the conditions of its production, the role it has played in the writing of history and the ideological construction of the great stories it contains.

From the space left by this exercise in deconstruction, those who are infected ask: where does the archive speak from? Who is it for? What stories does it tell? Who does it represent? How is it shared, how it is activated? For fever causes an increased awareness of the subjective and geopolitical dimension of knowledge production: it moves the archives from the traditional centres of power to other latitudes, it maps other geographies and opens up different perspectives from which history can be examined. It seeks to infect archives with the voices, opinions and political production of the peripheries, thus disturbing hegemonic representations and interpretations.

Fever also carries the right to archive. It is the lucidity of recognising itself as its own subject and reclaiming it as a common tool. Its symptoms are the permissions we grant ourselves by appropriating its materials, by recombining them into non-linear, non-exemplary collections that are fragmentary and incomplete. Archive fever is imagining new combinations of meaning that allow oblique, twisted, more horizontal readings. Readings and ways of examining the archive that call out to all the senses and the body too; that show the spatial order of the archive through non-exclusive categories and unexpected parameters. It is archiving on the basis of affinities, echoes and reverberations; on the basis of a logic of contagion and contact that activates communication flows rather than containment systems. The archive conceived as a living organism, as a soft body, as a mutant entity.

Archive fever is that which inoculates the epidemic of creating archives. Archives, anarchives, counter-archives, collection of collections or second-order archives; platforms to understand, for example, the HIV crisis or independence day as counter-side of the neo-liberal management of our lives or the exploitation of the Western model of nation, respectively. Archive fever infuses the urgency of building repositories that listen to other experiences, that circulate others and produce other memories. It also involves doing so from practices that look after the knowledge and experience they keep from a desire to collectively release their infectious potential. And also, against the neoliberal masquerade of the end of history and the threat of privatisation of information, it is embracing the destruction of the archive. Not as melancholy, but as liberation: if the old regimes are to fall, their archives must fall too; only their ruins will be productive. For the question regarding the archive today means ultimately regaining the political strength of the archive, not only in relation to history, but also to the present. For archiving is an exercise of alternative historiography as an archaeology of the future.

'The question of the archive is not a question of the past. It is not the question of a concept related to the past that may or may not be at our disposal, an archivable concept of the archive. It is a question of the future, the question of the future itself, the question of an answer, a promise, a responsibility for tomorrow. The archive: if we want to know what it means, we will only know in the future. Perhaps.'²

¹ Ariella Azoulay, *Archive*. www.politicalconcepts.com.

² Jacques Derrida, *Mal d'archive: une impression freudienne*. Paris: Galilée 1995. p. 362

TABAKALERA



The Day After

2016.04.15 – 2016.06.26

Maryam Jafri-ren erakusketa bat

Una exposición de Maryam Jafri

An exhibition by Maryam Jafri

The day after. Maryam Jafriren erakusketa bat

Ane Agirre Loinaz. Tabakalerako Praktika Artistikoen arduraduna.

Tabakalerak *The Day After* aurkezten du, Maryam Jafri-ren erakusketa. Parisen dagoen Bètonsalon centre d'art de recherche zentroak eta Tabakalerak ekoitzia elkarrekin. Proiektua joan den urteko martxoan aurkeztu zen Parisen, eta Tabakalerarako, artistak artxiboaren inguruan artikulatu du erakusketa, eta haren dimentsio hirukoitza azaldu du: artxiboa artistaren pieza gisa, artxiboa ikerketa-kasua gisa eta artxiboa jabetza gisa.

Independence Day 1934-1975 (Independentziaren eguna 1934-1975) proiektuaren abiapuntua da, eta martxan da 2009tik; Maryam Jafrik sortutako argazki-instalazio bat da, artxiboa artistaren obra gisa aurkezten duena. Artista argazki-biltzailea ere bada, eta hala, zenbait galdera proposatzen ditu: Zein da artxiboaren funtzioa deskolonizazio-prozesuetan? Zein funtzio du dagoeneko independizatu diren herrialdeetan? Nola eskuratzen dira artxiboetako materialak? Nola zirkulatzen dute, nola berraktibatzen dira gaur egun? Ba al da gestualtasun partekatua bat bildutako argazki guztietan? Ba al da haien arteko simetriarik? Zer dute ikonotik argazki horiek?

Pieza hori osatzen duten argazki guztiak independizatuak herrialdeetako artxiboetan bildu dira; horixe da abiapuntua. Horman mosaiko gisa jarrita daudela, etengabe galdekatzen digute. Tira bateko binetetan bezala, irudiek pisu historikoa nabarmentzen dute, eta pisu hori begi-bistan gelditzen da guztiak elkarrekin ikusita. Argazkien kokapena oso zaindua da, eta kokapen hori baliatuz, artistak herrialdeen historia irakurtzeko proposamena egiten du, argazkiak lengoia gisa erabilita; independentziako ekitaldi eta ospakizunetako erritu politikoak ere azaltzen ditu, besteak beste agintarien arteko sinadura edo desfile militarra.

Proiektuaren bigarren estadio batean, ikerketa-kasuek ditugu. Artxibo bat osatzeko baliabidea dira, eta dokumentu berriak onartzen dituen eta etengabe hazten ari den bilduma baterako ekarpenak dira. Ikerketa-kasuetan kolaboratzera gonbidatutako hainbat pertsonaren datu eta ahotsak ere agertzen dira, eta hala, pieza bat sortzen dute aretoan: eskulturak, ohar, testu, material bibliografiko eta argazkiak biltzen dituen instalazio bat osatuz. Batzuetan tratamendu akademiko eta prozesuala dute, bestetan literatura eta kazetaritza ekarpenak; horrek artxiboaren izaera mutantea adierazten du. Horrenbestez, irekita daude hura zalantzan jartzen duten sarrera berriak hartzeko.

Ikerketa-kasuek, era berean, hainbat eta hainbat ibilbide osatzen dituzte, ez dago bide bakarra, ez dago historia bakarra. Bisitaren esperientziak eta

The day after. Una exposición de Maryam Jafri

Ane Agirre Loinaz. Responsable de Prácticas Artísticas de Tabakalera.

Tabakalera presenta *The Day After* una exposición de Maryam Jafri coproducida por Bètonsalon - centre d'art de recherche y Tabakalera. El proyecto, fue presentado en marzo del 2015 en la capital francesa. Para Tabakalera, la artista articula la exposición en torno al archivo y a una triple dimensión del mismo: el archivo como pieza de artista, el archivo como caso de estudio y el archivo como propiedad.

Independence Day 1934-1975 (el día de la Independencia), es el punto de partida del proyecto, en proceso desde 2009. Se trata de una fotoinstalación creada por Maryam Jafri que representa la faceta del archivo como obra de artista. La artista, como recolectora de las fotografías, plantea una serie de interrogantes: ¿Cuál es el papel del archivo en los procesos de descolonización? ¿Qué papel tienen en el devenir de los países ya independizados? ¿Cómo se accede a esos materiales de archivo? ¿Cómo circulan y se reactivan en la actualidad? ¿Hay una gestualidad común en todas las fotografías recopiladas? ¿Se da una simetría entre ellas? ¿Qué tienen de icono estas fotografías?

Todas las fotografías que forman parte de la pieza han sido recolectadas de los archivos de los países independizados. Dispuestas a modo de mosaico en la pared, el cuestionamiento es constante. Como las viñetas de una tira, las imágenes realzan el peso histórico que se hace más evidente al verlas juntas. Una disposición estudiada, donde la artista sugiere una lectura de las historias de los países a través de un lenguaje fotográfico que apunta también a los rituales políticos de los actos y celebraciones de independencia, como pueden ser la firma entre mandatarios o el desfile militar.

En un segundo estadio del proyecto nos encontramos con los casos de estudio. Éstos desempeñan la labor de recurso para la formación de un archivo; son aportaciones a un repositorio en constante crecimiento que admite nuevos documentos. El despliegue de datos y voces de personas invitadas a colaborar en los casos de estudio, toman forma de pieza en la sala, de esculturas que conforman una instalación de anotaciones, textos, materiales bibliográficos y fotográficos. A veces con tratamiento académico y procesual, otras con aportaciones literarias y periódicas, aluden al carácter mutante de un archivo que hacen que esté abierto a nuevas entradas que lo cuestionan.

Los casos de estudio conforman a su vez una multiplicidad de recorridos. No hay una única ruta, no hay una única historia. La experiencia de la visita y su lectura posibilita la ramificación de esa única historia. La universalidad de la historia de los países, las relaciones coloniales y postcoloniales dejan de ser

irakurketak historia bakar hori adarkatzeko aukera ematen dute. Herrialdeen historiaren unibertsal-tasunak eta kolonia garaiko eta kolonia ondoko harremanek estandarizatu izateari uzten diote, bide eta forma desberdinetan iristen baitzaizkigu. Bétonsalon-en egindako ikerketa-kasuak dauzkagu erakusketarako, eta beste hiru kasu gehitu dizkiogu, Tabakalerako erakusketarako berariaz sortu direnak: Marokoko subirotasun-plazak, Ekuatore Ginea eta Filipinak.

Hirugarrenik, Maryam Jafri-k *Versus Series* argazki sorta jarri du ikusgai. *Independence Day 1934-1975* pieza osatzeko egin zuen ikerketan zehar, Maryam Jafri konturatu zen argazki-agentzia mundialetatik eskuratzen zituen argazkietako asko, esaterako Getty Images edo Corbis agentziek emandakoak, herrialde independizatueta gobernuek ematen zizkioten berberak zirela. Agentzia horiek mundu mailako argazkilaritza-banku boteretsuak dira, eta irudi horien egiazkotasuna, kalitatea, jatorria, jabetza eta kontrola baliozkotzen dute. Maryam Jafri-k ariketa bat proposatzen digu: agentziek emandako irudiak argazki-funts nazional edo pribatueta lortutako ondoan jartzea, eta hala, oso antzekoak edo berdin-berdinak direla egiaztatzea.

Irudien digitalizazioak irudi-bankuak ekarri ditu eta, ondorioz, ale grafikoen kudeaketa kontrol-sistema bihurtu da, argazki horien salerosketa eta merkantilizazioa kontrolatzeko modua. Bi argazkiak baliozkotzat jotzen badira, hots, jatorrizkotzat, eta jabetza-eskubide bermatua badute: Nor da argazki horien jabea? Nork kontrolatzen du irudi horien salerosketa eta erreproduzioa? Herentzia eta ondare nazional baten eskubideak esplotatu al daitezke?

Erakusketa honetan Maryam Jafri artxibategien aukera desberdinetan sakontzen du, eta hainbat beharri erantzuteko zer nolako formatu eta formak dituzten aztertzen du. Proiektu horrek Maryam Jafri berak hasitako prozesu bat jartzen du agerian; prozesu hori adarkatu eta eraldatu egiten da, eta bere bidea jarraitzen du; beste eragile batzuekin kolaboratzeko prest dago, egon litezkeen bestelako ikuspegi-angeluak gehitzeko, eta narrazioak kontatzen ditu historien margenetan.

The Day After. An exhibition by Maryam Jafri

Ane Agirre Loinaz. Head of Contemporary Art Practices of Tabakalera.

Tabakalera presents *The Day After. An Exhibition by Maryam Jafri* co-produced by Bétonsalon - centre d'art de recherche, located in Paris, and Tabakalera. In the project, which was presented last March in the French capital, for Tabakalera, the artist focuses on archives from a three-fold perspective: archives as an artist's work, archives as a case study and archives as property.

The starting point of the project is *Independence Day 1934-1975*, which the artist has been working on since 2009. This photo installation, created by Maryam Jafri, represents archives understood as an artistic work. As the collector of the photographs featured in the installation, the artist poses a series of questions: What is the role of archives in de-colonisation processes? What role do they play in the future of now independent countries? How are archive materials accessed? How do they circulate and how are they reactivated in today's modern world? Is there a common gestuality in all the photos featured? Is there a kind of symmetry between them? And to what extent are these photographs iconic?

All the photographs that form part of this work were collected from the archives of now independent former colonies. This is the premise that serves as a starting point for the installation. Arranged in mosaic form on a wall, they constantly force us to

estandarizadas, ya que nos llegan desde diferentes vías y formas. Para la exposición contamos con los casos de estudio realizados en Bétonsalon a los que hemos añadido tres nuevos casos que se han desarrollado específicamente para la muestra en Tabakalera: las plazas de soberanía de Marruecos, Guinea Ecuatorial y Filipinas.

En tercer lugar, Maryam Jafri muestra su serie de fotografías *Versus Series*. Durante su investigación para componer la pieza de *Independence Day 1934-1975*, Maryam Jafri descubrió que muchas de las imágenes que le proporcionaban las diferentes agencias mundiales de fotografía, como por ejemplo Getty Images o Corbis, eran las mismas que le proporcionaban desde los gobiernos de los países independizados. Estas agencias son poderosos bancos fotográficos de nivel mundial que validan la autenticidad, la calidad, procedencia, propiedad y el control de estas imágenes. Maryam Jafri propone un ejercicio: situar la imagen que le proporcionan diferentes agencias al lado de la que ha conseguido desde fondos fotográficos nacionales o privados para comprobar que son similares, cuando no idénticas.

La digitalización de las imágenes ha generado bancos de imágenes y, por extensión, la gestión de ejemplares gráficos se ha convertido en un sistema de control del tráfico y mercantilización de esas fotografías. Si ambas fotografías se dan por válidas, originales y con su derecho de propiedad garantizada: ¿Quién es el propietario de esas fotografías? ¿Quién controla la circulación y reproducción de esas imágenes? ¿Se pueden explotar los derechos de una herencia y patrimonio nacionales?

Esta exposición permite a Maryam Jafri ahondar en las diferentes posibilidades del archivo, en los formatos y formas que tiene para responder a diversas necesidades. Este proyecto refleja un proceso iniciado por ella, que se ramifica y se transforma, y que sigue su curso prestándose a la colaboración con otros agentes, sumando otros posibles ángulos de visión y escribiendo narraciones en los márgenes de las historias.

question our beliefs. Just like a comic strip, the images highlight the historical weight of what we are seeing, a weight that becomes even greater when we see them all together. It is a studied arrangement through which the artist suggests an interpretation of the history of these countries through the language of photography, examining also the political rituals of the events and acts held to celebrate independence, which include the signing of declarations between leaders and military parades.

The second phase of the project focuses on case studies. These serve as a resource for establishing an archive, and are contributions to an ever-growing repository that accepts the constant inclusion of new documents. The data collected and the voices of those invited to collaborate in the case studies become exhibition pieces in the room, sculptures which together make up an installation of notes, texts, bibliographic materials and photographs. Some are academic or procedural in nature, while others have a more literary or journalistic feel; all, however, allude to the constantly-changing nature of an archive, a nature that renders it open to new additions that question its very existence.

The case studies also reflect a range of different paths. There is no single path, just as there is no single history. The mere act of visiting and reading the pieces contained in the installation causes this single history to sprout a multitude of different branches. The universality of the countries' history, along with colonial and post-colonial relations, are no longer standardised, since they arrive along different pathways in a variety of different shapes and forms. The exhibition features the case studies developed in Bétonsalon, along with three new ones which were created specifically for the installation in Tabakalera: Equatorial Guinea, the Spanish sovereign territories in Northern Africa and the Philippines.

Thirdly, Maryam Jafri presents a series of photographs entitled *Versus Series*. During her research for the piece *Independence Day 1934-1975*, the artist noticed that many of the images provided by the different international photography agencies, such as Getty Images and Corbis, were the same ones sent her by the governments of the now independent countries. These agencies are powerful image banks which operate at an international level and which validate the authenticity, quality, origin, ownership and control of these photographs. Maryam Jafri proposes the following: she puts the images provided by the different agencies alongside those sent by national or private photograph archives, in order to prove that they are similar, if not identical.

The digitalisation of photographs has given rise to image banks, and as a result, the management of graphic copies has become a means of controlling the traffic and commoditisation of these images. If both photographs are considered valid and original and are held to have guaranteed copyright, then who owns them? Who controls their circulation and reproduction? Can a country's national inheritance and heritage be thus exploited?

The exhibition enables Maryam Jafri to explore the different possibilities offered by archives, examining the formats and forms they take in order to respond to diverse needs. This project represents a process initiated by the artist that splits off into different branches and constantly transforms itself into something different. And this process continues through collaboration with other agents, incorporating other possible viewpoints and perspectives and writing alternative narratives in the margins of history books.

IKERKETA KASUAK / CASOS DE ESTUDIO / CASE STUDY:

1. Biharamunik gabe (*No Day After*)

Leire Vergara. Ikertzailea eta komisario independentea.

1. Sin un día después (*No Day After*)

Leire Vergara. Investigadora y comisaria independiente.



Irudia /Imagen /Image: Heidi Vogles, 2015

Ikerketa-kasu hau Maroko iparraldeko kostan dauden Espainiaren subiranotasun-plazei buruzkoa da, eta haien okupazio-ereduei buruzkoa; izan ere, gaur egun eredu horrek oraindik ez du biharamunik. 1995ean hiri autonomoen estatusa eskuratu zuten Ceuta eta Melillak eta, orduz geroztik,

Este caso de estudio está dedicado a las plazas de soberanía españolas situadas en la costa norte marroquí y a su modelo de ocupación que a día de hoy permanece sin un día después. Desde 1995, momento en el que las ciudades de Ceuta y Melilla obtuvieran el estatus de ciudades autónomas, el término plazas

"subiranotasun-plaza" terminoak toki hauei baino ez die egiten erreferentzia: Vélez de la Gomera-ko harkaitza (1508an), Alhucemas irlak (1663an okupatuak), eta Chafarinas (1848an). Perejil irlaren okupazioaren kontra izandako operazio militarren ondotik (2002an), termino horixe erabiltzen da uhartetxo horri deitzeko ere.

Gaur egun, plaza horietako batzuetan, hala nola Vélez eta Alhucemas-en, jendea bizi da; beste batzuk aldiz hustu egin dituzte, esaterako Chafarinas, eta Perejil aldiz Marokok eta Espainiak monitorizatzen dute, inorena ez izaten jarrai dezan. Hiritar soilek ez dute haietara sartzerik. Espainia eta Marokoren arteko gatazka geopolitikoak ezartzen dituen mugen barruko tokia baino ez du plazetako bizitzak; Europako mugen zaintza- eta kontrol-teknika berezi eta nahasien mende daude. Izan ere, toki horiek galdu egin dute, XX. mendean zehar pixkanaka, beren eginkizun militar eta zibila, eta lege-ambigutasun horrekin lagundu egiten dute Sahara azpitik datorren migrazio-fluxua eteten. Salbuespena dira eta, izaera horrekin, hurbileko eta urruneko gauzen zentzua dute aldi berean, auzokide eta ezezagunena, lagun eta etsaiena, lurralde eta jurisprudenzia, legezko hiritar eta paperik gabekoena, konstituzio eta nazioarteko legearena; azken batean, *terra nullius* baten estatus lausoa daukate, eta aldi berean, *res communis* baten potentzialtasunak ere bai.

